

# 11 herri, hamaika esperientzia desberdin



## Aduna

**Eskola:** Adunako Herri Eskola.  
**Ikasle kopurua:** 46 ikasle.



Eskolako patioaren berrikuntza dela eta, ekitate gabezia patioan aztertu dute, ikasleen interesa oso handia izan delarik.



## Anoeta

**Eskola:** Anoetako Ikastola.  
**Ikasle kopurua:** 303 ikasle.

**Gertaera bat:** oka jokoa, ipuinak, ginkana, abestiak eta beste hainbat ekintza burutu dituzte gaia lantzeko, bukaeran guztiarekin DVD bat egin dute. Lana gogoz egin dute!

**Udal Batzarra:** Udalarekin hartu-emana geroz eta aberatsagoa da, oso ongi baloratzen dutelarik.



## Berastegi

**Eskola:** J.A. Muñagorri.  
**Ikasle kopurua:** 114 ikasle.

**Gertaera bat:** Aste Multikulturala antolatuta zuten, kultura eta jende ezberdinak ezagutzeko aukera paregabea!



**Udal Batzarra:** Ingurumen Batzordeko ordezkari guztiak joan ziren, urtetik urtera gehiago animatzen dira, beraien papera seriootasunarekin betetzen dutelarik.



## Berrobi

**Eskola:** San Andres.  
**Ikasle kopurua:** 47 ikasle.

**Gertaera bat:** Beraiek prestatutako LURBIRAN proiektua landu dute, mundu osoko jendea ezagutu dute, herrialde, modu, kultura eta kontinente desberdinetakoak, gauza berri pilo bat ikasi dute! Senegalerako anbulantzia bat erosteko dirua biltzen aritu dira kursoan zehar.



**Udal Batzarra:** Eskolako ikasle guztiak joan ziren Udal Batzarrera eta anbulantzia erosteko laguntza eskatu zieten.



## Bidegoian

**Eskola:** Txinkorta LHI.  
**Ikasle kopurua:** 40 ikasle.

**Gertaera bat:** nahiz eta gaia jorratzerako garaian zailtasunak izan, gauza berri asko ikasi dituzte. Kanpoan ibilitako eta bertara etorritako pertsonak ezagutu dituzte. Bertako nekazarien bizimodua eta zailtasunak aztertzean gauza askotaz jabetu dira.



**Udal Batzarra:** herriko jolastokietan konponketak egiteko eskatu zioten Udalari, baina beraiek ere gauzak zaindu behar dituztela jabetu arazi zitzaizen. Gustura egon ziren eta asko animatu ziren Alkateari iradokizunak egitera.



## Ibarra

**Eskola:** Uzturpe Ikastola.  
**Ikasle kopurua:** 283 ikasle.

**Gertaera bat:** ALBOAN GKEaren "Ikas ezazu elkartzatuna" erakusketa ibiltaria eskolan jaso zuten, solidaritatea eta beste herrialdeen egoera ezagutzeko aukera paregabea, ekitate gabeziaren hainbat aspektu landu zituztelarik.



## Ikaztegieta

**Eskola:** Ikaztegieta LHI.  
**Ikasle kopurua:** 52 ikasle.

**Gertaera bat:** gure herrietara geroz eta etorkin gehiago iristen dira eta beraiei harrera on bat egin ahal izateko, harrera protokolo bat egin zuten, horrela eskolara etortzen diren ikasle berriei harrera on bat egingo diete bertan eroso sentitu daitezen.



**Udal batzarra:** ikasleak urtean zehar egindako lana antzeppen moduan erakutsi zieten Udaleko ordezkariari, oso atsegina gertatu zelarik.



## Irura

**Eskola:** Irurako Ikastola.  
**Ikasle kopurua:** 166 ikasle.

**Gertaera bat:** ekitate gabezia lantzeko ekintza ezberdinak egin zituzten: ipuinak, jokoak, pelikulak, etab. Ikastolara etortzen diren etorkinei harrera on bat egiteko konpromisoa hartu zuten.



**Udal Batzarra:** Udaletxera gerturatu ziren ikasleak, alkatesari kursoan zehar egindako aktibitateak kontatu zizkieten. Ondoren hamaiketako goxo bat eskaini ziguten, ze ondo!



## Lizartza

**Eskola:** Juan XXIII LHI.  
**Ikasle kopurua:** 66 ikasle.

**Interesgarrienetakoa:** nahiz eta etorkin gutxi egon herrian, bertara bizitzera joandakoak eta kanpoan ibilitako herritarrei inkesta egin zieten, beraiek aurkitutako zailtasunak eta bizipenak ezagutu zituztelarik.



## Villabona

**Eskolak:** Jesusen Bihotza Ikastola, Fleming.  
**Ikasle kopurua:** 806 ikasle.

**Interesgarrienetakoa:** herriaren diagnosis egitean etorkinak iristerakoan aurkitzen dituzten zailtasunez konturatu ziren. Egoera hobetzeko hainbat proposamen idatzi zituzten.

**Gertaera bat:** Bi ikastetxeak elkartu ziren ikasle foroan eta zikloka elkarturik proposamenak eta konpromisoak bateratu zituzten gero Udalera txosten bateratu bat eramateko. Lana gogoz egin eta gero primerako hamaiketako dastatu zuten.



**Udal Batzarra:** ikasle asko gerturatu zen Udalera eta egindako lana aurkeztu zuten. Bukaeran batzuk animatu ziren Alkatesari galdera batzuk egitera. Berriro ere Udalak hamaiketako eskaini zien eta plazan jolasean gustura ibili ziren.



## Zizurkil

**Eskolak:** Jesusen Bihotza Ikastola, P.M.Otaño Herri Eskola, San Millan Eskola.  
**Ikasle kopurua:** 227 ikasle.

**Interesgarrienetakoa:** LH 5. mailakoek EKITATEA zer den landu ondoren, gutun pertsonalak idatzi zituzten, eurak ulertzen zutena adieraziz eta komunikabide desberdinetara bidaliz, HITZA eta DIARIO VASCO egunkarietan argitaratu zituztelarik.



**Gertaera bat:** Ikasle Foroa ospatu zuten hiru eskolek Udalera proposamen bateratu bat eramateko. Proposamen eta konpromiso ugari atera ziren eta bozketa egin zuten garrantziaren arabera sailkatzeko.



**Udal Batzarra:** Udalak jasotako ekarpeni idatziz erantzuteko konpromisoa hartu zuen eta ikastetxe bakoitzera bisita egingo zietela ere agindu zuten.

## Ondorioak, proposamenak eta konpromisoak

Orokorrean Ekitate Gabezia gaia landu dituzten guztiek hurrengo ondorioak atera dituzte: behar baino jostailu gehiago dituztela, dirurik gabe ondo pasa daitekeela, etorkinak gehienbat beharra-rengatik etortzen direla eta zailtasun askorekin aurkitzen direla eta bidezko merkataritza bultzatu behar dela.

Ondorioz, hurrengo proposamenak egin dizkiete Udalei: jolastoki eta parkeetan aurkitutako arazoak konpontzeko, etorkinei lana eta etxebizitza aurkitzen laguntzea, euskara erakusteko ikastaroak eskaintzea, garapenerako diru laguntzak ematea, bigarren eskuko merkatuak antolatzea eta gizon eta emakumeen arteko berdintasun eskubidea bermatzea.

Eta amaitzeko, umeek eta gazteek konpromiso batzuk hartu dituzte, hala nola, jostailu gutxiago eskatuko dituztela, beraien jolasetan ez dutela inor baztertuko, etorkinak ondo tratatu, onartu eta gure arauak eta ohiturak erakutsi, bidezko merkataritzako produktuak kontsumitu, etab.

Hala ere, herri bakoitzean proposamen eta konpromiso zehatzak atera dira.

Lan bikaina egin da eta hemendik aurrera konpromisoak betetzen joatea espero da.

# Tolosaldeko Topaketak



Joan den ikasturtean eskualde mailan Eskolako Agenda 21 proiektuari bultzada handi bat eman zitzaion. Tolosan proiektuari 2004 urtean eman zitzaion hasiera eta Zizurkilen 2006an, baina ia bi herri hauen laguntzaz 13 herrietako 25 ikastetxeko inplikazioa lortu zen, gaur egun 6.200 bat ikasle, 200 irakasle baino gehiago eta ehundaka guraso parte hartzen dutelarik.

Orain arte eskola desberdinetako partaideak elkar ezagutzeko eta beraien esperientziak konpartitzeko ez dute aukerarik izan, ezta ere udal gaineko erakundeei eta eskualdeko elkarteetara iristeko ere. Bi helburu hauek jorratzeko asmoz, aurtén Tolosaldeko

EA21eko aurreneko Topaketak antolatu dira.

Maiatzaren 20an Tolosako Zerkausia eskola berezi bat bihurtu zen. Bertan, 140 ikasle, irakasle eta guraso elkartu ziren, denak ikasgai berdina lantzeko asmoz. Irura, Berrobi, Berastegi, Anoeta, Villabonako Fleming ikastetxea eta Jesusen Bihotza ikastola, Zizurkilgo P. M. Otaño eta San Millan eskola, Tolosako Laskorain ikastola, Hirukide, Orix-Samaniego, Paper Eskola eta Lanbide Eskola eskolakoak ikasturte honetan landu duten Ekitate gabezia gaiaren inguruan ateratako ondorioak lantzeko elkartu ziren.



Tolosaldeko eskolako Agenda 21 programako partaide guztiak talde txikitan banatu ziren. Ikasturtean zehar bakoitzak bere eskolan izan duten esperientziak trukatzeko eta landu duten gaiaren inguruko galderei erantzun zieten.

Bestalde, asmo nagusietako bat herrien arteko harremanak sendotzea eta elkar ezagutzea izan zen.

## Eta datorren ikasturtean, zer?

Gaur egun munduan dauden arazo asko ingurumenaren degradazioarekin eta planetaren baliabideen gehiegizko ustiapenarekin erlazionatuta daude. Horieta arazo larrienetarikoa bat urarena da. Gure ibaien kutsadura, biodibertsitate falta, uholdeak eta lehortek, gehiegizko ustiapena, etab.

Beraz, 2009/10 ikasturtean Uraren gaia eta honekin erlazionatutako aspektu ezberdinak landuko dituzte, beti ere kontsumoa eta ekitate gabeziarekin lotuta.

## Gizartearen eta gurasoen partaidetzaren garrantzia

Eskolako Agenda 21 lantzen ari diren ikasleen inguruan dauden helduen inplikazioa oso garrantzitsua da, ezinbestekoa da filosofia berean aritzea.

Pixkanaka denon artean gizarte eta ingurune bidezkoago eta jasangarriagoa lortzeko helburuarekin.




# Eskolako Agenda 21

Tolosaldea 2008/09

ekitate gabezia

Aduna-Anoeta-Berastegi-Berrobi-Bidegoian-Ibarra-Ikaztegieta-Irura-Lizartza-Villabona-Zizurkil

## 11 Herrietako ume eta gazte elkarrekin lanean, etorkizun jasangarri eta justuagoaren alde



2008-2009 ikasturtean Tolosaldeko haurrek eta gazteek Ekitate Gabezia gaia landu dute Eskolako Agenda 21 programaren barnean, bizitzen ari garen krisi ekonomikoarekin zerikusi handia duen gaia. Helburu nagusia ikasleek ingurumena, kontsumoa, bizi kalitatea, pobrezia, giza eskubideak eta aztarna ekologikoa oso erlazionatuta daudela konturatzea izan da. Herri bakoitzean ospatutako Udal Batzordeetara eraman dituzte lanaren emaitzak eta hausnarketaren ondorioz adostutako konpromisoak eta proposamenak. Eskolako komunitate osoak hartu du parte: ikasleak protagonista nagusiak izan dira baina baita ere gurasoak, irakasleak eta eskolako beste langileak. Denera, 2100 ikasle izan dira proiektu honetan parte hartu dutenak.

## Zer da eskolako agenda 21 lantzea?

Eskolako Agenda 21, ikastetxearen eta inguruaren **jasangarritasunaren** eta kalitatearen alde hezkuntza komunitateak aurrera eramaten duen konpromiso eta ekintza-plan bat da. Eskolako Agenda 21 programak ikasleei beren ingurumen hurbilaren arazoa aztertu eta ulertzea ahalbidetzen die eta hiritar gisa bidezkoagoa eta ekologikoki jasangarriagoa izango den gizarte baten alde aritzeko prestatzen ditu.

## Aurtén egindako lana

Ikasturte honetan **Ekitate Gabezia** landu dute, ikasleek eskolako eta herriko diagnosi bat egin dutelarik, arazo larrienak zeintzuk diren identifikatuz.

Herriaren diagnosa egiteko, Tolosako Ingurumen Zentroak zikloa aspektu edo ezaugarri bat hartu eta proposamen bat egin die:

- Haur Hezkuntzakoek, power point baten bidez 3 haur desberdinen ohiturak aztertu dituzte, herrialde desberdinetako muturretako egoeren berri izan dutelarik : oparotasuna, txirotasuna, etab. Gainera, Umeen Eskubideen irakurketa egin dute.

- Lehen Hezkuntzako 1go eta 2. mailakoek, aisia eta denbora librean dirua hain ezinbestekoa ez dela jabeatzeko, arratsalde bat ahalik eta diru gutxien gastatuz ondo pasatzeko saiakera egin dute.

- Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailakoek migrazioa animalietan, gizakietan eta gure gizartearen oso ohiko jardura dela ikasi dute. Inkesta egin diete inguruan edota familian migratzaile gertatutako bati bere bizipenei buruzko berri izateko.

- Gure gizartea etorkinen hartzaile gertatu dela konturazari eta egoera honek dakartzan ondorioak aztertu dituzte. Gure herrian etorkinei laguntzeko dauden elkarte, zerbitzu publikoak, etab. aztertu dituzte.



- Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoek bidezko merkataritza zer den ezagutu dute. Herriarrei inkesta bat egin diete, herrian bidezko merkataritzako produktuak saltzen dituzten denden inguruan galdetuz, baita enpresa alternatibo eta solidarioen inguruan.

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1go eta 2. mailakoek soldata txikiekin bizitzeko moduak, oinarriko errentak eta %0,7 aztertu dituzte. Udalarri eta eragile sozialei galdetu diete: herriko proiektuak, zerbitzuak eta elkarteak ezagutuz.

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailakoek Ingurumen Biografiak eta Aztarna Ekologikoa aztertu dituzte elkarriketen bidez, Ingurumen Biografien web orria kontsultatuz, inkestak eginez eta galdetegiak erantzunez.